

TITULARRAK	ADIERAZLEAK	Azken data	Δ Urte artekoa (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
<ul style="list-style-type: none"><li>Otsailean erregistratuko langabeak 21.640 izan ziren Bilbon; hau da, kopurua jaitsi egin da.</li><li>Bilboko enpresetan afiliatutako langileen kopuruak gora egin du aurreko hilabetearekin alderatuta (% 0,8), eta 192.329 pertsona gehitu dira.</li><li>Erregistratutako kontratuak % 15,4 handitu dira urte batetik bestera, eta kontratuen % 93,4 zerbitzuen sektorekoak izan dira.</li><li>Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek urte arteko % 1,3ko igoera izan dute.</li><li>Bilboko jarduera turistikoaren esparruan, bidaiari gehiago egon da (+% 2,9), baina otsailean behera egin dute ostatu-gauek (-% 3,3 urte artean).</li><li>Bizkaiko BPGd-ak urte arteko % 1,6ko gorakada izan du 2023ko laugarren hiruhilekoan (% 1,7 ere bai 2023ko urte osorako).</li><li>Bilboko aireportuak 410.745 bidaiari erregistratu ditu otsailean. Hau da, urte arteko % 17,8ko gehikuntza egon da.</li><li>Bilboko Portuak 2,3 milioi tona erregistratu ditu otsailean -% 5,2ko beherakada aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta.</li></ul>	<strong>Lan-merkatua</strong>			
	Afiliatuak (kop.)	192.329	0,8*	ots.
	Erregistratutako langabeak (kop.)	21.640	-0,4*	ots.
	Erregistratutako kontratuak	10.751	15,4	ots.
	<strong>Merkataritza</strong>			
	Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenta-indizea (2015. urtea = 100eko oinarria)	104,4	1,3	ots.
	<strong>Turismoa</strong>			
	Bidaiarien sarrera (kop.)	73.013	2,9	ots.
	Ostatu-gauak (kop.)	131.009	-3,3	ots.
	<strong>Ekonomia eta enpresa</strong>			
	Etxebizitza libre berria (€/m <sup>2</sup> )	3.991,8	-18,7	2023ko 4. HH
	Etxebizitza erabilia (€/m <sup>2</sup> )	2.947,7	4,7	2023ko 4. HH
	Bizkaiko BPGd (2015.urtea= 100 oinarria)	117,6	0,4*	2023ko 4. HH
	<strong>Garraioa</strong>			
	Bidaiarien aireko garraioa (kop.)	410.745	17,8	ots.
Salgaien itsas garraioa (milioi tona)	2,3	-5,2	ots.	
Hiriko garraioa eta metropoliko garraioa (milioi bidaiari)	119,7	14,5	2023	

## DATU BAT

Urte arteko **% 1,6**

Bizkaiko BPGd- 2023ko 4. HH

## LAN-MERKATUA

### Erregistratutako langabezia

Otsailean 94 langabe gutxiago erregistratu ziren, hau da, hil artean  $-0,4\%$  gutxiago, eta 21.640 langabe daude udalerrian.

Langabezia jaitsi egin da gizonen eta emakumeen artean,  $-0,7\%$  eta  $-0,2\%$ , hurrenez hurren. Datu absolutuetan, hilabetea ixteko, emakumeen artean langabezia gutxiago jaitsi da (29 gutxiago) gizonekin alderatuta (65 gutxiago).

Adin-talde gazteenean izan ezik ( $1,5\%$  eta 28 gehiago), langabeziak kontuan hartutako adin-talde guztietan egin du behera. Langabeziak behera egin du 25-44 urteko tartean ( $-0,7\%$  eta 58 gutxiago), eta 45 urte eta gehiagokoan artean ere bai ( $-0,5\%$  eta 64 langabe gutxiago).

Sektoreka, langabeziak behera egin du industrian ( $-0,4\%$  eta 6 gutxiago), eraikuntzan ( $-1,3\%$  eta 18 gutxiago) eta zerbitzuetan ere bai ( $-0,9\%$  eta 146 gutxiago). Lehenengo enpleguaren bila dauden artean, langabezia  $2,4\%$  hazi da (75 langabe gehiago), eta lehen sektorean hazkundera  $0,2\%$ koa izan da (langabe bat gehiago).

**Benchmarkina.** Espainiako bost hiriburu handienetan (G-5) erregistratutako langabezia-tasa berdin mantendu da aurreko hilaren aldean, nahiz eta hiriburuen artean joera bera ez egon. Hazkunderik adierazgarriena Zaragozan erregistratu da ( $1,0\%$ ), eta jaitsierarik nabarmenena, berriz, Valentzian ( $-1,1\%$ ).

Euskal hiriburuen taldean (G-3) erregistratutako langabezia mantendu egin da ere bai. Iruñean egin du gora ( $1,0\%$ ), eta behera, berriz, Donostian ( $-1,4\%$ ) eta Gasteizen ( $-0,1\%$ ).

Langabeziak behera egin du EAEn ( $-0,6\%$ ). Lurraldeka, Araban  $0,1\%$  egin du behera, Bizkaian  $0,4\%$  eta Gipuzkoan  $1,3\%$ .

### Afiliatuak

Otsailaren amaieran, Bilboko enpresetan 192.329 afiliatu zeuden, hau da, urtarrilean baino 1.573 enplegu gehiago,  $0,8\%$  gehiago, alegia.

Hiletik hilera, afiliazioak gora egin du araubide nagusietan: araubide orokorrean 1.509 enplegu gehiago daude, langile autonomoen araubide berezian 67, eta etxeko langileen araubide berezian 7. Araubide berezietan (nekazaritzakoa eta itsasakoa) 10 afiliatu gutxiago daude.

Sektoreka, zerbitzuetan 1.496 afiliatu gehiago daude ( $0,9\%$ ), eraikuntzan 73 gehiago ( $0,8\%$ ) eta lehen sektorean 3 gehiago ( $1,3\%$ ). Industrian eta energian mantendu dira (enplegu bat gehiago,  $0,0\%$ ).

#### Erregistratutako langabeak

Hilabete arteko  $\Delta$

Otsaila	21.640 pertsona
	$0,4\%$ ▼
Emakumeak	$0,2\%$ ▼
Gizonak	$0,7\%$ ▼

#### Benchmarkina

Hilabete arteko  $\Delta$

Bilbo	$0,4\%$ ▼
G-5	$0,0\%$ =
G-3	$0,0\%$ =

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

#### Populazio afiliatua, araubideen arabera

Hilabete arteko  $\Delta$

Otsaila	192.329 pertsona
	$0,8\%$ ▲
Araubide orokorra	$0,9\%$ ▲
Autonomoak	$0,3\%$ ▲
Etxeko Berezia	$0,1\%$ ▲
Beste batzuk	$1,4\%$ ▼

Zerbitzuetan, eta datu absolutuetan, administrazio-jardueretan eta zerbitzu osagarrietan, hezkuntzan, ostalaritzan eta gizarte-zerbitzuetan izandako igoerak nabarmentzen dira (879, 217, 116 eta 105 gehiago, hurrenez hurren). Jaitsierak izan dira osasunean, jolas eta kultura-zerbitzuetan eta administrazio publikoan (46, 42 eta 32 gutxiago, hurrenez hurren).

**Urte artean** enpleguak % 3,7ko gorakada izan du, hau da, 6.938 afiliatu gehiago. Afiliazioak gora egin du araubide orokorrean, etxekoan eta itsasoko zein nekazaritzako araubide berezietan. Autonomoen araubide berezian behera egin du (-% 0,9), 195 autonomo galdu ditu eta 27 hilabete dira jarraian behera egiten.

Sektoreka, zerbitzuek 6.499 afiliatu gehitu dituzte (% 3,9), industriak 231 (% 2,7) eta eraikuntzak 235 (% 2,5). Lehen sektoreak soilik galdu du enplegua, 27 gutxiago (-% 10,3).

Hezkuntzaren eta informazio eta komunikazioen adarretan izandako hazkunde absolutuak nabarmentzen dira, baita administrazio-jardueretakoak ere (1.499, 1.256 eta 1.174 afiliatu gehiago, hurrenez hurren).

**Benchmarkina.** Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak % 0,7ko gorakada islatu du aurreko hilaren aldean. Hiriburu guztietan egin du gora afiliazioak. Igoerarik nabarmenena Valentzian izan da (% 1,1), eta Madril eta Zaragozan izan da igoerarik txikiena (% 0,5 kasu bietan).

G-3ko hiriburuetan, afiliatuen kopurua, batera hartuta, % 0,5 igo da. Gasteizen % 0,3 igo da afiliazioa, Donostian % 0,5 eta Iruñean % 0,6.

EAEn, oro har, afiliatuak % 0,6 igo dira hilabete artean. Afiliazioak gora egin du hiru lurraldeetan: % 0,7 Gipuzkoan, % 0,6 Bizkaian eta % 0,3 Araban.

## Erregistratutako kontratuak

Otsailean 10.751 kontratu formalizatu ziren Bilboko enpresetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 15,4 eta 1.433 kontratu gehiago. Urtetik urtera areagotu egin dira emakumeei egindako kontratuak (473 gehiago) eta gizonei egindakoak ere bai (960 gehiago).

Kontratuek kontuan hartutako adin-talde guztietan egin dute gora. % 32,2 egin dute gora 25 urtetik beherakoen kontratuak, hau da, 569 kontratu gehiago egin dira; 25 eta 44 urte artekoen kontratuetan hazkundera % 11,4koa eta 546 kontratukoa izan da, eta % 11,6koa eta 318 kontratukoa, berriz, 45 urte eta gehiagokoen kontratuetan.

Erregistratutako kontratuen % 49,7 dagokio 25-44 urteko adin-tarteari (5.346 kontratu), % 28,5, berriz, 45 urtetik gorakoei (3.067) eta gainerako % 21,7, ordea, 25 urtetik beherakoei (2.338).

### Afiliatuak, jarduera-sektoreen arabera

Hilabete arteko  $\Delta$

<b>Otsaila</b>	<b>192.329 pertsona</b>
	% 0,8 $\blacktriangle$
Zerbitzuak	% 0,9 $\blacktriangle$
Eraikuntza	% 0,8 $\blacktriangle$
Industria	% 0,0 =
Lehen sektorea	% 1,3 $\blacktriangle$

### Benchmarkina

Hilabete arteko  $\Delta$

<b>Bilbo</b>	% 0,8 $\blacktriangle$
<b>G-5</b>	% 0,7 $\blacktriangle$
<b>G-3</b>	% 0,5 $\blacktriangle$

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

### Erregistratutako kontratuak

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Otsaila</b>	<b>10.751 pertsona</b>
	% 15,4 $\blacktriangle$
Emakumeak	% 8,8 $\blacktriangle$
Gizonak	% 24,5 $\blacktriangle$
Lehen sektorea	% 29,4 $\blacktriangledown$
Industria	% 8,1 $\blacktriangledown$
Eraikuntza	% 9,1 $\blacktriangle$
Zerbitzuak	% 16,7 $\blacktriangle$
Kontratututako pertsonak	% 9,8 $\blacktriangle$

Beherakada izan dute industriako kontratuak (-% 8,1 eta 30 gutxiago) eta lehen sektorekoek (-% 29,4 eta 5 gutxiago); gora egin dute, ordea, eraikuntzakoek (% 9,1 eta 30 gehiago) eta zerbitzuetakoek (% 16,7 eta 1.438 gehiago).

Aldi baterako lan-kontratuak kontratu guztien % 73,8 izan dira otsailean. 7.783 pertsona kontratatu dira eta % 54,8 emakumeak dira. Kontratu-txandakatzearen indizea hau da: pertsona bakoitzeko 1,38 kontratu.

## MERKATARITZA

### Saltoki handiak eta elikagaien kateak

Bizkaiko saltoki handietako eta elikadura-kateetako salmentek, otsailean, % 1,3 egin dute gora urte batetik bestera, lan-egutegi homogeenari dagokionez. Aurreko hilabetearekin alderatuta, % 1,9 igo dira salmentak.

Elikagaien salmentek % 2,2 egin dute gora 2023ko otsailarekin alderatuta, eta gainerako produktuak maila berean mantendu dira (% 0,0) aldi berean.

Bizkaiko saltoki handietako landunen kopuruak % 3,7 egin du gora urte batetik bestera, eta hemeretzi hilabetez jarraian gora egin du.

Lurraldeka, saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek gora egin dute Gipuzkoan (% 2,4) eta Araban (% 4,3). EAEn, orokorrean, % 2,1 egin dute gora.

#### Saltoki handiak Bizkaia

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Otsaila</b>	<b>104,4</b>
<b>Salmenta-indizea</b>	<b>% 1,3 ▲</b>
- Elikadura	% 2,2 ▲
- Gainerako produktuak	% 0,0 =
<b>Landunak</b>	<b>% 3,7 ▲</b>

## TURISMOA

Bilboko hotel-establezimenduetan 131.009 ostatu-gau erregistratu dira otsailean, hau da, % 3,3ko beherakada egon da urtetik urtera (4.526 ostatu-gau gutxiago).

Bidaiarien sarrerek % 2,9 egin du gora, batez ere atzerriko bidaiarien artean, % 5,8ko hazkundera izan baitute urtetik urtera. Estatuko bidaiaren gorakada % 1,4koa da, eta hilabete honetan hiriko hotel-establezimenduetan izandako sarreraren % 65,1 dira.

Hiriko hoteletan ostatu hartutako bidaiariei dagokienez, Madrilgo Erkidegokoak izan dira ugariak (% 24,5), gero EAEkoak (% 17,1), Kataluniakoak (% 11,7) eta Andaluziakoak (% 7,8). Atzerriko bidaiariei dagokienez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugariak: Frantzia (% 17,1), Alemania (% 8,8), Erresuma Batua (% 8,6) eta Portugal (% 6,7).

#### Ostatu-gauak

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Otsaila</b>	<b>131.009 ostatu-gau</b>
	<b>% 3,3 ▼</b>
Hiru izar eta gehiagoko hotelak	% 2,5 ▼
Gainerako hotelak eta ostatuak	% 6,1 ▼

#### Bidaiarien sarrera

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Otsaila</b>	<b>73.013 sarrera</b>
	<b>% 2,9 ▲</b>
Nazionalak	% 1,4 ▲
Atzerritarak	% 5,8 ▲

#### Batez besteko egonaldia

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Otsaila</b>	<b>1,79 ostatu-gau/bidaiari</b>
	<b>% 6,3 ▼</b>

Batez besteko egonaldiak behera egin du otsailean: bidaiari bakoitzeko 1,79 ostatu-gau.

Logela eskuragarriko diru-sarrerak 52,0 eurokoak dira, % 0,8 gehiago urte artean.

**Benchmarkina.** Euskal hiriburuen multzoan (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera positiboa izan da, urtetik urtera % 8,7 hazi da eta. Gora egin dute Gasteizen (% 11,4), Donostian (% 9,4) eta Iruñean (% 3,2). EAE osoan hazkundea % 1,9koa izan da aurreko urteko otsailaren aldean.

Bestalde, estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauek % 8,7ko gorakada izan dute. Multzo horretako hiriburu guztietan areagotu da ostatu-gauen kopurua. Zaragozan egon da gorakadarik handiena (% 18,4).

### Sektorearen errentagarritasun-adierazleak

Urte artekoa  $\Delta$

Logela bakoitzeko eguneko batez besteko tarifa (€) % 0,7 ▼

Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€) % 0,8 ▲

### Benchmarkina

Urte artekoa  $\Delta$

**Bilbo** % 3,3 ▼

**G-5** % 8,7 ▲

**G-3** % 8,7 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

## EKONOMIA

### Bizkaiko BPGd

Bizkaiko barne produktu gordinak urte arteko % 1,6ko gorakada erregistratu du 2023ko laugarren hiruhilekoan. Euskal ekonomian, orokorrean, % 1,7 egin du gora.

Bizkaiko ekonomiak hamaika hiruhileko daramatza jarraian hazkunde positiboa izaten BPGd-an.

Hiruhilekotik hiruhilekorako aldakuntzaren baldintzetan, Bizkaiko BPGd-a % 0,4 igo da eta, ondorioz, hazkundea txikia izan da aurreko hiruhilekoan izandakoarekin alderatuta (% 0,5). Bestalde, EAEn hazkundea % 0,5ekoa izan da.

EAE osorik hartuta, sektoreek bilakaera desberdina izan dute hiruhilekotik hiruhilekora: Beherakada izan da nekazaritzan (-% 11,7), eta gorakada, berriz, gainerakoetan: % 1,9 industrian eta % 0,4 eraikuntzan nahiz zerbitzuetan.

**2023ko urteko balantzea.** 2023 urtean Bizkaiko BPGdaren bilakaera positiboa izan da % 1,7.

EAEko BPGd-ak % 1,8 egin du aurrera 2023an. Lehen sektorean izan ezik (-% 3,0), sektore guztietan izan dira gorakadak: % 0,3 industrian, % 2,1 eraikuntzan eta % 2,4 zerbitzuetan.

Zerbitzuetan, merkataritza, ostalaritza eta garraioaren azpisektorea % 3,7 hazi da; administrazio publikoa, hezkuntza, osasun eta gizarte-zerbitzuena % 2,3, eta gainerako zerbitzuak % 1,6.

### Barne-produktu gordina Bizkaia

#### IV. hiruhilekoa

Urte artekoa  $\Delta$  % 1,6 ▲

$\Delta$  Hiruhileko artekoa % 0,4 ▲

**Hiruhilekoko BPGd-a (milioi €)** 11.971,5

# GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

## Aireportuko bidaiariak

Bilboko aireportuak 410.745 bidaiari izan ditu otsailean (iritsierak eta irteerak kontuan hartuta), hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 17,8 eta 62.078 bidaiari gehiago. Emaiza horiekin, gainera, otsaileko daturik onena lortu du, funtzionatzen hasi zenetik.

Hegaldi nazionaletan 30.399 bidaiari gehiago izan dira urtetik urtera (% 12,8), baita nazioartekoetan ere, % 28,7 gehiago eta 31.868 bidaiari gehiago.

Hilean zehar egindako hegaldiak, iritsieren eta irteeren artean, 3.256 izan dira (% 5,9), eta garraiatutako merkantziak igo dira (% 17,6).

**Benchmarkina** Espainiako bost hiri nagusien barruan (G-5), urtetik urtera % 14,9ko igoera kontabilizatu da. Zaragozan izan ezik (-% 9,3), taldeko aireportu guztietan bidaiariaren kopuruak gora egin du. Sevilla izan da hazkunderik nabarmenena (% 20,8) eta Madril baxuena (% 12,9).

G-3 multzoan, bidaiariaren trafikoari begira, % 5 handitu da. Iruñean % 17,6 egin du gora, eta Donostian % 15,6. Gasteizen -% 23,3 jaitsi da.

### Aireko garraioa

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Otsaila</b>	410.745 bidaiari
	% 17,8 ▲
Nazionalak	% 12,8 ▲
Nazioartekoak	% 28,7 ▲
<b>Salgaiak (kg)</b>	% 17,6 ▲
<b>Hegaldiak</b>	% 5,9 ▲

### Benchmarkina

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Bilbo</b>	% 17,8 ▲
<b>G-5</b>	% 14,9 ▲
<b>G-3</b>	% 5,0 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

## Portuko trafikoa

Bilboko Portuak 2,3 milioi tonako trafikoa izan zuen otsailean, hau da, -% 5,2 gutxiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolioa eta gasa, funtsean) portuan otsailean kudeatutako salgaien % 63,8 izan da, eta urte arteko -% 2,5eko beherakada izan du. Solteko gaien trafikoak -% 4,9 egin zuen behera (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), eta salgai orokorra -% 11,7.

Bidaiariaren itsas garraioan, 36 bidaiari zenbatu dira hilabetearen amaieran.

Otsailean ez da itsas-bidaietako jarduerarik erregistratu.

Metatutako datuari dagokionez, urtarriletik otsailera, 5,3 milioi tona lortu dira portuko trafikoan, aurreko urteko epe berean baino % 8,7 gehiago.

### Itsas garraioa Otsaila

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Portuko trafikoa</b>	2,3 milioi tona
	% 5,2 ▼
<b>Bidaiariak garraiatzea</b>	36 bidaiari
	% 98,4 ▼
<b>Itsas bidaiariak (kop.)</b>	0

## Hiri- eta metropoli- garraioa

**2023ko urteko balantzea.** 2023 urtean Bilboko hiri- eta metropoli-garraioetako erabiltzaileen kopurua (Metro Bilbao, Bilbobus eta EuskoTran), guztira, 119,7 milioi bidaiarira heldu zen; beraz, % 14,5 igo da aurreko urtearekin alderatuta.

Edonola ere, urteko datu horrekin 269.688 bidaiaritan gainditu da (% 0,2 gehiago) 2019an serie historikoan lortutako daturik onena.

Metro Bilbaok bidaiari guztien (92,4 milioi) hiru laurden jaso ditu, hau da, % 14,9ko igoera izan du urtetik urtera.

Bilbobusek bidaiarien bosten bat baino pixka bat gehiago ditu (24,1 milioi) eta % 11,9ko igoera erregistratu du.

EuskoTranen, bidaiarien kopurua % 23,9 handitu da, eta, guztira, 3,2 milioi bidaiari garraiatu ditu.

### Hiri- eta metropoli- garraioa

Urte artekoa  $\Delta$

<b>2023</b>	119,7 milioi bidaiari % 14,5 ▲
<b>Metro Bilbao</b>	% 14,9 ▲
<b>Bilbobus</b>	% 11,9 ▲
<b>Eusko Tran</b>	% 23,9 ▲

## ADIERAZLEEN TAULA

	Azken data	Urtetik urterako aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
<b>Lan-merkatua</b>			
Erregistratutako langabeak (kop.)	21.640	-0,4*	ots 2024
Afiliatuak (kop.)**	192.329	0,8*	ots 2024
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	10.751	15,4	ots 2024
Biztanleria aktiboa (milakotan)**	168,5	6,1*	2023ko IV. HH
Biztanleria landuna (milakotan)	155,3	5,4*	2023ko IV. HH
Langabeak (milakotan)	13,2	14,8*	2023ko IV. HH
BAlko langabezia-tasa (%)	7,84	0,62 p.p.*	2023ko IV. HH
<b>Merkataritza</b>			
Kontsumoko prezioen indizea (KPI)***	114,1	0,8*	ots 2024
Afiliatuak**	18.841	-1,6	ots 2024
Txikizkako merkataritzako salmentak (indizea)***	120,4	0,2	2023ko IV. HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	104,4	1,3	ots 2024
<b>Turismoa</b>			
Bidaia-erien sarrera	73.013	2,9	ots 2024
Ostatu-gauak	131.009	-3,3	ots 2024
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaia-eria)	1,79	-6,3	ots 2024
Hoteletako okupazio-maila (%)	49,0	0,0 p.p.	ots 2024
Diru-sarrerak libre dagoen logelako ,(€)	52,0	0,8	ots 2024
<b>Ekonomia eta enpresa</b>			
Bizkaiko BPGd	117,6	0,4*	2023ko IV. HH
Industria ekoizpena (indizea)**	110,5	4,5	2024ko urt.
Merkataritza-sozietate berriak	797	9,3	2023
Zerbitzuetako salmentak (indizea)***	121,7	2,6	2023ko IV. HH
Etxebizitza berriaren batez besteko prezioa (m <sup>2</sup> )	3.991,8	-18,7	2023ko IV. HH
Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa (m <sup>2</sup> )	2.947,7	4,7	2023ko IV. HH
<b>Garraioa</b>			
Bidaia-erien aire bidezko garraioa	410.745	17,8	ots 2024
Hegaldiak	3.256	5,9	ots 2024
Salgaien itsas garraioa (milioi tonatan)	2,3	-5,2	ots 2024


\* Aldakuntza-tasa aurreko epearen aldean \*\* Bilboko enpresetan. \*\*\* Bizkaiari dagokiona.

Iturriak: Geuk egina, Eustaten, ElNren, Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren, EEZPren, Merkataritza Erregistroaren, AENAREN, Estatuko Portuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Garraio Partzuegoaren datuetan oinarrituta.




## GRAFIKOAK


### Erregistratutako langabezia




### Afiliatuak




### Saltoki handiak eta elikagaien kateak



### Hotel-gauak



### BPGd Bizkaia



### Aireportuko bidaiariak

